

JAZINTO CARRASQUEDO OLARRA 1895-1988

Azaroaren 9an hil zen Donostian 93 urte beterik Jazinto Carrasquedo Olarra urgazlea. Jazinto, Billabonan jaioa zen 1895eko Otsailaren 10ean. Salerosketarako ikasketak egina zen, baina laster agertu zuen literaturarako zaletasuna. 1923an hasi zen *Euskal Esnalea* zeritzan aldizkarian euskaraz idazten eta geroago *Argia*, *El Día*, *Pueblo Vasco*, *Euzkadi* eta beste zenbaitetan gudara arte; guda ondoan ere bai zertxobait *Zeruko Argia* astekarian.

Lehen aldiko denbora berean ekin zion antzerkigintzari eta Donostiako Santomasetako emanaldietan agertu ziren bere lanetarik zenbait eta garai haietako sariak ere jaso zituen. Lehen antzerki lan aipagarrien arteko ditu: *Gure semea* eta *Guzia illun itzaltzu* deitzen direnak, Toribio Altzagaren zuzendaritzapean Donostiako Euskal Iztundeak 1927an sarituak. Ohizko bizitzari loturik zebiltzan antzerki gaiok. Holakoak genituen *Kokolo txerritatalari*, *Etxe aldaketa* eta *Garo usaia* Hauek 1933 eta 1935ean "Antzerki" ekintza taldeak sarituak. Azkena, Txomin Agirrereren *Garoa* liburuan oinarriturik egina, 1936ko Maiatzaren 17an aurkeztu zen eta harrera ona izan zuen. Ondoren *Etxerako... nor?* P. Sarriegiren original batetan oinarriturik, eta *Laratzean sua*. Humorezko komedia entretenigarriak ziren, gatz eta piperrik ez zitzaien falta. Denbora hartako jenteagandiko harrera dugu lekuko.



Horiez gainera, itzulpenez ere arduratu zen. Hara nola burutu zituen adaptazioz Lope de Vega-ren *La discreta enamorada* (*Neskatx zuhurra maitemiñez*, bere kaxaz moldaturik), Calderón de la Barca-ren *La vida es sueño*, Eugène Ionesco-ren *Les Chaises* eta Vilhen Moberg-en *Mans Hvinna*, horiez gainera Tolstoi-ren lanen bat ere itzulia omen zuen.

Gipuzkerazko idazkera herrikoa zuen maite eta euskara idatziaren batasunerako arauak ez zitzaizkion atsegin. Baina, gizonari ezin diogu uka zintzotasuna eta garaiko giroan hain jator eskaini zuen obra.

1966an izendatu zuen Euskaltzaindiak urgazle. Azken urteotan, 1970ean lanetik erretiratu zenetik, apenas ezer idatzi zuen.

Euskaltzale zintzoa, goian bego.

J. S. M.
1988-XI-29